

Asisko gutuna

2010eko apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

18. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sareko bigarren printzipioa den apaltasunetik gertu dago itxaropena, hil honetan jorratuko dugun gaia. Izan ere, geure barruan eta inguruan dugun errealitateaz jabetzeak sar gaitzake, zenbaitetan, desanimorik handienez.

Hala ere, hortik haratago, ireki gaitzke bidean aurrera egiteko itxaropenera, euskarria harturik ez hainbeste geure ahaleaginean, baizik eta ezin dugula dena kontrolatu onartzeak eman diezaguen indarrean, eta konfiantza izatean.

Gogoetarako gaia

Itxaropena dela eta

Itxaropena da, giza izaerak hartu duen oparirik handienetakoa. Filosofo batek dioen bezala: "Itxaroan dagoen animalia da gizakia". Giza izaeraren barne-barnean dago esperoan egotea, geure errealitatera moldatzen eta geroari itxaropenez begiratzen saiatzea. Itxaropenak indarra ematen digu martxari eusteko, bizirik egoteko, hobetuz joateko, borrokan jarraitzeko. Eta hori horrela da, erabat konplutua gertatzen ez denean ere. Itxaropenari eutsiz, gorde dezakegu bizitzeko behar dugun gutxienezko konfiantza.

Askotan ikusten dugu geure mundu honetan, norakorik eza nagusitzen zaiola bizitzari. Eten afektiboek, miseriak, ezer espero ezinak, bakardadeak ... gogortu egiten digute bihotza eta konfiantza galarazi. Itxaropenik gabe hilda gelditzen da gizakia. Nola eutsi itxaropenari ezbeharrean, dena gure kontra dagoenean, irtenbiderik ez denean? Zer gelditzen zaigu desesperazioaren aurrean?

Ebanjelioan, Jesusen hitz guztiak aurre egiten diote esperorik ezari. Behin eta berriz atea jotzen diogun zorientasunen Jainkoa, itxaropenaren Jainkoa da. Txikiak eta negar dagitenak baditu maiteen, izan dezakegu itxaropena geure bihotzean. Bera hil eta piztu bada, oinaze eta sufrimendu orok badu zertarakoa, kontrako guztiak kontrako. Gure desesperazioaren barru-barruan han dago Kristo, gure barnean argia gordez. Ez gaitzezen geure sufrimenduari itsatsita gelditu, baizik eta saia gaitzezen hura apalki Jainkoaren eskuetan jartzen.

Gogorra da desesperaziora gerturatzea. Irtenbiderik gabeko zerbaiten aurrean, ihes egitea dugu lehen erreakzioa. Baina baditugu baliabide batzuk, ahuleziatik itxaropena ateratzeko. Sor ditzakegu baldintzak itxaropenarentzat: sufritzen duenari geure bihotza ireki; geure esku dagoena jarri mundua zuzenagoa, pertsonak zulora bideratzen ez dituen, egiteko; itxaroan egoteko pazientzia izan, kontrakoak kontrako direla ere.

Bibliako pasartea: Is 41, 17-20

Dohakabe eta behartsuak ur bila dabilta, baina alferririk; lehor dute mihia egarriz. Nik, Jaunak, erantzungo diot haien premiari, nik, Israelen Jainkoak, ez ditut bazterrerara utziko. Mendi-kasko soiletan errekek sortuko ditut, ibarretan iturriak; basamortua aintzira bihurtuko dut, lur lehorrean

iturburuak sorraraziko. Zedro, arkazi, mirto eta olibondoak landatuko ditut basamortuan; zipres, zumar eta izeiak eremuan. Horrela ikusiko dute denek eta jakingo, ohartuko dira eta behingoz ulertuko nik, Jaunak, egin dudala hori guztia, nik, Israelen Jainko santuak, dudala sortu.

Espiritualtasun frantziskotarra

“Benetan esaten dizut: pazientzia izan badut eta ernegatu ez banaiz, borretantxe datza benetako poza”. Esan horretan Frantziskok argi eta garbi utzi zion anai Leoni, zertan datzan poz benetako eta osoa. Eta argiago utzi zuen, oraindik, zein den bizimodu frantziskotarraren euskarri eta oinarria. Bizimodu hori ez da oinarritzen gauzak ondo joatean, ez eta norberak espero ditzakeenak beteak gertatzean ere.

Apaltasunik gabeko itxaropena optimismoa da. Itxaropenik gabeko apaltasuna pesimismoa da. Itxaropena eta apaltasuna, beraz, txanponaren bi aldeak dira, eta bata itxaropenari oinarria ematen dio, eta besteak apaltasunari porrota ez izatea, konfiantzazko jarrera baizik. Hori izan zen Frantziskoren esperientzia: kantatu egiten zion beti Jainkoari, asko zuenean nahiz eskas zuenean, garaipenean nahiz porrotean. Sorkari guztien kantikan kantu egiten dio anaia Eguzkiari, hain zuzen eguzkiaren argiak begiak erre egiten dizkionean, oinaze larria emanez; eta kantu egiten dio bizitzari, hain zuzen hainbat gaixotasunek aldi berean azpian hartzen dutenean; eta arreba bailitzan kantatzen dio heriotzari, laster eta erremediorik gabe gainera datorkiola ikusten duenean. Hori da itxaropena Frantziskorentzat: porrotean optimismoa mantentzeko oreka hori, hain zuzen gauzak guk espero bezala irteten ez direnean, ipurdikoak hartzean, ezinean.

71 (70) Salmotik

Jauna, zuregan dut babesia:
zuzena baitzara, libra nazazu, askatu!
Makur belarria niregana eta salba nazazu.
Izan zakizkit harkaitz babesle,
izan nire gaztelu.

Jainko Jauna, zu zaitut itxaropen eta segurtasun.
Zu izan zaitut euskarri amaren sabeletik.
Zuri etengabe nire gorespena!

Ene Jainko, ez gelditu niregandik urrun,
zatozkit laster laguntzera!

Nik itxaroten jarraituko dut,
gero eta areago zaitut goresiko.
Zure egintza handien berri emango dut, Jauna;
zure salbamen-asmoa kontatuko dut.

Nor zu adinakorik, oi Jainko?
Hamaika larrialdi eta zoritxar pasarazi didazu.
Baina berriro bizi araziko nauzu,
Herio-Leize sakonetik altxatuko,
berriro kontsolatuko.

Eta eskerrak emango dizkizut, ene Jainko,
leiala zarelako.

Gutuneko azken hitzak

Hortxe jokutzen dugu bizitza: orainak duen errealismoaren eta geroari itxaropenez begiratzearen tartean.

2010eko maiatzeko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 14,7-14	8 Jn 15,18-21	15 Jn 16,23b-28	22 Jn 21,20-25	29 Mk 11,27-33
2 Jn 13, 31-33. 34-35	9 Jn 14, 23-29	16 Lk 24, 46-53	23 Jn 14, 15-16. 23-26	30 Jn 16, 12-15
3 Jn 14,6-14	10 Jn 15,26-16,4a	17 Jn 16,29-33	24 Mk 10,17-27	31 Lk 1,39-56
4 Jn 14,27-31a	11 Jn 16,5-11	18 Jn 17,1-11a	25 Mk 10,28-31	
5 Jn 15,1-8	12 Jn 16,12-15	19 Jn 17,11b-19	26 Mk 10,32-45	
6 Jn 15,9-11	13 Jn 16,16-20	20 Jn 17,20-26	27 Lk 22,14-20	
7 Jn 15,12-17	14 Jn 15,9-17	21 Jn 21,15-19	28 Mk 11,11-26	

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hilero hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: “Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak”.

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2010eko apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

18. zenbakia

Apaltasuna/itxaropena binomioa osagarri inportantea da kristau bizitzan. Apaltasunak gure errealitate eta izaerari begiratzen dio, itxaropenak, berriz, Jainkoak hitz emandakoari. Horrela, apaltasuna ez da soilik gure mugak onartzea, Jainkoaren agintzariak onartzeko tokia ere bada. Eta itxaropena ez da, jada, desiraz eta ahalbide burutu gabeez janaritzen, fedeaz baizik, gutako bakoitzarekin maitasun-historia batean konprometitu den Harengan dugun fedeaz, alegia.

Itxaropena dela eta

Baduzu itxaropenaren esperientziarik zeure bizitzan? Zein momentutan bizi ahal izan duzu? Esperientzia horretan aurkitu ahal izango duzu euskarria, zuretzat irtenbiderik ez dagoela iruditzen zaizun momentuetan.

Zer erantzun diezaiekezu, zeure esperientziatik, bigarren paragrafoko galderei?

Irakur itzazu Jesusen zoriontasunak (Lk 6,20-23; Mt 5,1-11) eta Lk 10,21-24 txatalak. Zer esnatzen dute zure baitan?

Zein da zure jarrera, zeure inguruan sumatzen duzun itxaropen-faltaren aurrean?

Ibaiak sorraraziko ditut muino lehorretan

Nornahiren bizitzan daude *“egarriz diren mingainak”*, *“mendi lehorrak”*, *“basamortuak”*, *“lur elkorra”* ...

Har itzazu kontuan zeure bizitzan daudenak: zeure animo-faltak, zeure itxaropen-falta ... Jar iezaiezu izena eta utzi zeure barnean egoten. Ez egin ihes haietatik.

Nondik sortzen dira? Izan dezakete zerikusi handia, zeure giza errealitate eskasa eta mugatua ez onartzearekin.

Irakur ezazu Isaiasen pasartea, zuri zuzendua balego bezala: zer mugitzen da zeure barruan?

Jaunak horrela nahi du, eta ireki dezake zuloa zeure itxaropen-faltaren harresian, beti guk espero dugunari erantzuten ez badio ere.

“Nik, Jaunak, erantzungo diot baien premiari, ez ditut bazterreraz utziko”. Ahal duzu, nahi duzu konfiantza Harengan jarri?

Horretantxe datza benetako poza

Zer sentitzen duzu ondorengo baieztapen honen aurrean: inportanteena ez da gauzak ondo joatea, ez eta norberak espero ditzakeenak beteak gertatzea ere?

Edo bestela, nola bizi dituzu eguneroko zailtasun eta porrotak? Porrot eta desilusio huts gisa, ... edo itxaropenetik aukera berri bezala?

Zer esaten dizu Frantziaskoren esperientziak? Erokeria hutsa iruditzen zaizu, ala sumatzen duzu horren azpian dagoen guztia? Egin diezazuke ekarpenik zeure bizitzarako?

Zu zaitut, Jauna, itxaropen eta segurtasun.

Irakur ezazu poliki salmoa. Zer sentimendu sortzen ditu zuregan? Har itzazu kontuan. Zer diote zutaz, une honetan zeuk nahiz zeure fedeak duen momentuaz?

Patxada egin, Jainkoari erreferentzia egiten dioten hitzetan: *zuzena, barkaitz babesle, gaztelu, nire itxaropen eta segurtasun, nire euskarri* ... Hori dena izan nahi du Jainkoak zuretzat ...

Itxaropenik gabe gelditzen zaren momentuetan, irten zeure baitatik eta oihu egin Jainkoari, salmogileak dagien bezala. Erabil ditzakezu haren hitzak, baina baita zeureak ere, zeure barru-barrutik datozenak, zentsurarik gabe, datozkizun moduan.

Zeure bizitzako unerik txarretan Jainkoaren presentziaren esperientzia izan baduzu, zuk ere esan ahalko diozu: *“Nor Zu adinakorik!”*; *“berriro biziaraziko nauzu”*; *“eskerrak emango dizkizut, ene Jainko, leiala zarelako”*.